


ANTXIÑAKO FOTOGRAFIAK



Oñatiko bankuak eta beste

Mutikotan ezagutu gittuan bankuak plaza inguruan egozen, oraintxe letxe: **Guipuzcoano** izenekua Irizar estankuaren parian, **San Sebastián** Kale Barriko hasieran ezker aldetik, eta **Banco de Vizcaya** Txurrukaneko arkupetako ertz batian. **Gipuzkuanuak** eta **Sansebastianak**, orduan esaten geben moduan, gerra aurreko hamarkadetatik ziharduein oñatiar batzuen diru-kontuak gordeten, kontrolaitten, negoziatzen eta bideraketan. **Bizkaikua** gerra ostekua zala esango neuke. Oker banabil, zuzendu egidazue, mesedez.

Azkenengo urtietan hamaika izen- eta leku-aldaketa izan ditue Oñatiko bankuok be. **Gipuzkuanuak** betiko tokixan jarraitetan dau, baiña 2012tik aurrera **Sabadell** bankuak bereganatuta eta izen barrixarekin; **Bizkaikua** Txurrukaneko arkupetatik haruntzatxuago fan zan 1961-1962xan Zazpibideta-Kale Zaharreko **Bujero-Izarra** taberniak eukan lokaletara, eta geroztik hainbat fusiñoren ondorioxo **BBVA** bihurtu da (Banco Bilbao Vizcaya Argentaria); Kale Barriko **San Sebastián** bankuak 1972 aldera itzi otsan lanari; eraikin hau eta aldameneko etxia 1975ian eretsi ziran kalia zabaketako. Donostiako diru-etxe hori orduantxe iruntsi eben **Hispano Americano** bankuak.

Gaurko argazkittako batian banku horrek **bota aurretik zelako itxuria** eukan ikusi leike. Kantoiaren sarrera estua be somaitten da. Hurrengo agiri dan etxia, barriz, 1971n lurreratu euen, haren orubian hiru pisutako eraikiña jasoteko, behekaldean **Laboral Kutxaren** bulego barrixak ifiñixaz. Lehengo etxe zaharrari **Oñaterena** esaten xakon, abizen horretako familia bertan bizi zalako. Beheko partian **Esteban Oñatek** jardun eben zapatari-lanetan luzaruan. Esteban zapata-konpontzaillia ez ezik, bandako musikua eta argazkilarixa be bazan. Entzuna dakot XIX. eta XX. gizardixen bueltan **sagardotegixa** egon zala etxepe horretan.

Beste fotografixan bankua eretsita agerketan da eta aldameneko etxia bota barik. Honi **Gordoanekua** izena emuten gotsan, Txantxilipizteiko Zelaietako Gordoatzen kale-etxia zalako. Hemen be bazan denda bat: Goierriko Zaldibiatik, eta Ameriketatik zihar, Oñatira etorri xakun **Juan Joxe Garmendiak** jarritako **drogerixia**. Goguan dakot, noizian behin pagaren bat eskuraketan gebenian, hara faten giñala gomazko karamelo gozuak erostera. Orain **Sustrai** fruterixia dago inguru horretan eta **Banco Santander**-en bulegua. Ba, **Sansebastiana** ezkutau baldin bazan be, gaur egun bidekurtze hori Oñatiko **World Street** txikiña dogu, bertan Santander, Laboral Kutxa eta Kutxabank diru-etxeak alkarri begira dagoz-eta. Aurrezki Kutxen gorabeherak, **Kajadeahorresena**, hurrengo baterako jare biharko dittugu.

Argazkixak sarian batera eta bestera dabiltzen iturri anonimuetatik aillegau xaku. Argibidiak Xabier Zelaia, Tere Irastortza, Rosarito Oñate eta Bixente Urrutiari zor dostegu. Milla esker danoiri!